

berria izan arren, transgenikoak non-nahi ditugu dagoeneko. Eneko Agirre biologoak emandako datuen arabera, munduan jada 51 milioi hektarea transgeniko daude; AEBetan erein daiteken lurrazalaren %44 transgeniko betea dago, eta Txinak ja iragarri du 2010erako bere lurrazalaren erdia transgenikoz estaliko duela. Halaber, jaten ditugun elikagaien erdiek eta sendagaien %60k osagai transgenikoak dituzte. Joera, gainera, gero eta gehiago zabaltzea da.

Bioteknologiak hartu duen garrantziaz jabetuta, Tolosako CITek antolatutako Zumardi 2002 natur jardunaldietan gai horixe aztertu dute aurten, eta arlo horretan aditu diren hainbat lagunek parte hartu dute. Buruak adina aburu izan dira, baina guztiek dei bertsua egin dute: arretaz eta kontuz aztertu beharreko gaia dela, muturreko jarreretatik urruti, eta nekazaritza arloko zein elikagaien industriako multinazionalen interesetatik aldentuta.

Ezagutza eta aplikazioa

Iritzi horretakoa da, esate baterako, Daniel Ramon Vidal Espainiako Elikagaien Teknologiako eta Agrokimika Institutu Zientifikoko ikertzailea. «Bioteknologia, berez, ona da. Ez dago aurrerapen zientifiko txarrik; ezagutza, berez, ona da. Aplikazioekin sortzen dira gero arazoak», azaldu dio KZri. Ildo horretatik, transgenikoen inguruan eztabaida arrazional eta orekatua behar dela uste du Vidalek: «Gauza onak ere ekarri dituzte transgenikoek. Besteak beste, elikagai horiei egiten zaien osasun arloko kontrola ikaragarri zorrotza da; inoiz inon ez zaio egin beste inongo elikagairi halako kontrolik eta, gainera, kontrol dinamika hori beste elikagaietara ere zabaldu egin da. Eta orain arte ez da ez inguruneke ez osasun arloko arazorik antzeman. Horrek ez du esan nahi etorkizunean izango ez direnik, baina elikagai tradizionalekin ere ez dago berme hori. Nolanahi ere, iruditzen zait ekarri duen kontrol dinamika hutsagatik ja onuragarria dela bioteknologiaren ekarpena».

Juan Felipe Carrasco ingeniari agronomoa eta Espainiako Greenpeaceko Ingeniaritza Genetikoko ardura-duna ez dator bat Vidalekin. Errezelo handiak ditu transgenikoen inguruan egiten diren ikerketen inguruan. «Kontuan eduki behar da nork ordaintzen dituen ikerketa zientifikoak eta zer interes dauden horien atzean. Multinazionalak ordaindutako ikerketak izaten dira askotan, eta, noski, beren nahien arabera emaitzak lortzen dituzte. Badira ikerketa independenteak gero eta argiago uzten dute transgenikoak kaltegarri izan daitezkeela». Vidalek ere ikusten du azterketak alde batera edo bestera makurtzeko arrisku hori. Horregatik, biziki garrantzitsua iruditzen zaio ikerketa diru publikoarekin ordaintzea.

Greenpeaceko Carrascorentzat, ordea, azterketak diru publikoarekin finantzatzek ez du erabateko bermerik ematen, multinazionalen interesak gobernuetara inoiz iristen direla irudi-



Nekazari txikiak, protesta gisa arto transgenikoko soro bat hondatzen, Frantzia • CHRISTOPHE ENA / AP

tzen baitzaio. «Munduan hiruzpalau enpresa handi daude ia oso-osorik nekazaritza kontrolatzen dutenak, eta gobernuak eta politikariak erabat eragin talde horien mende daude. Europako komisarioak etengabe elkartzten dira Aventis eta Monsanto jendearekin. Dolarraren menpe dauden patronal handi bat dira; funtsean, gure agintariak», azaldu du Carrascok.

Hain zuzen ere, multinazional handi horien izenak dira transgenikoen aurka nekazariak eta ekologistek egiten dituzten salaketetan beti ageri direnak: Monsanto, Aventis eta Syngenta, nekazaritzaren, elikagaien eta farmaziaren arloko erraldoiak. «Hiruzpalau

enpresa horiek, betikoek, kontrolatzen dute transgenikoen ekoizpen gehiena. Hori ez da batere demokratikoa; ez du elikagaien osasun segurtasunik ematen, monopolioa baita. Diktadura bat da. Gainera, enpresa horiek eurek ekoitzi zituzten 60ko hamarkadako Iraultza Berdeko pestizida eta ongari kimikoak, orain osasunerako hain kaltegarri zirela ohartu garen horiek. Enpresa horiek Mendebaldeko nekazaritza sistemak suntsitu zituzten aurrena, eta, orain, garapen bidean daudenekin gauza bera egiten ari dira», nabarmendu du Greenpeaceko kideak.

Gaur egun, transgenikoen landaketa handienak AEBetan eta Argentinan daude —gutxi gorabehera, Lurreko transgenikoen %90—, hau da, Argentinako azken gertakariak zalantza sor baditzakete ere, garutako herrialdeetan. Baina Carrascok garbi dauka multinazional horiek aspaldi abian jarritako estrategia Hirugarren Mundura zabaltzea dela, hango lurrez eta nekazarien babesgabeziak baliatzea. «Herrialde pobretako laborariak behartu egin dituzte

beren ohiko landaketak utzi eta monokultiboan eta transgenikoen landaketak hastera. Biodibertsitatearen galera ikaragarria ekarri du horrek, eta gero handiagoa ekarriko du. Nekazariarentzako biodibertsitatea oso garrantzitsua da, zerbaitek kale eginez gero uza batek beste era batera aurrera ateratzeko modua ematen baitie. Baina, zenbait kasutan publizitate gezurti eta basatiaren bidez eta beste batzuetan presio zuzenaren bidez, betiko praktika horiek lagatze-
ra behartu dituzte».

Gosearen konponbidea, gizabidezko banaketa

Azken batean, Carrascoren iduriko, bioteknologiaren bidez izugarrikeria handiak egiten ari dira ahulenen kontra. Besteak beste, genetikoki aldatzen dituzten landareen haziak antzuak izan daitezke salatzeko dira. «Hala, nekazariak ezin dituzte haziak berriro erabili, eta multinazionalen esku geratzen dira, harrapatuta, erabat haien menpera. Ekoiztako produktuen prezioak multinazional horietxek jartzen dituzte, prezio barrengarriak, eta nekazariak dena galtzen dute. Azken milaka urteetako demokrazia galerarik handiena gertatzen ari da», salatu du Greenpeaceko kideak.

Patenteekin gertatzen ari dena ere salagarria da: landare bat hartu, haren azterketa genetikoa egin eta patentatu egiten dituzte multinazionalak. Landare horren jabetza berenganatzen dute: arto mota batena, patata mota batena... eta gero, nekazariak ezin dute landare mota hori erabili baldin eta multinazionalari erosten ez badiote, nahiz eta betidanik erabili dituzten hazi eta landare motak izan. Isun ikaragarriak dira «legez kanpo» landare horiek erabiltzen harrapatuz gero jartzen dieten zigorrak.

Azken finean, multinazional handiek transgenikoak eta bioteknologia gosetea konpontzeko mirari gisa saltzen dituzte, baina, ematen duenez, oraingoz, pobreak gehiago pobretzeko bidean jarri dituzte. Horretan, Greenpeaceko Carrascorekin ados dago Espainiako Elikagaien Teknologiako eta Agrokimika Institutu Zientifikoko ikertzaile Daniel Ramon Vidal. «Gezurra da bioteknologia dela munduko gosea konpontzeko tresna. Mezu hori asko zabaltzen da eta neure onetik ateratzen nau. Gosearen arazoa ez dute transgenikoek konpontuko, baizik eta politikak, soberakinak banatuz konpontuko baita gosea, eta hori politikarien eta ekonomisten lana da, ez zientzialarionak, diosku.

«Garbi dago gosearena ez dela ekoizpen ahalmenaren arazoa. Indiak laborea sobera ekoizten du, eta, hala ere, munduko gosetuen herenak han daude. AEBetan 36 milioi lagun daude gaizki elikatuta. Banaketa eta justizia arazoa da. FAOk berak onartzen du gaur egungo ekoizpenarekin mundu osoa elikatzeko lain jateko dagoela», erantsi du Juan Felipe Carrasco Greenpeaceko kideak.



J. FELIPE CARRASCO

«Nekazaritza
arloan
multinazionalen

diktadura bat dago»